



Herriak preso bat irabazi du. Ez titiketa, gainaz. Baina oraindik gaurak den...

LEHEN HITZAK EUSKAL PRENTSARI

Arratsaldeko laurak laurden gutiagotan, pakete haundi bat alde batean eta maleta bestean zituela, irten zen Miguel Angel Beaumettes-eko espetxetik. Mehean, Iruñea ematen zuenaren, bere ama eta anai-arreba-k topatu zituen ia kausalidetekoa. Taxi bat harrapatu korrikan eta barruan sartu zutenean, familiakoei arnasa lasaitu zitzasien. Azkenik, bere arrean zegoen Miguel Angel!

APALAK "ZERUKO ARGIA" ri eskeini nahi izan zion bere lehen elkarrizketa, han zeuden artetik euskarako prentsa bakarra zelako.

— Gartzelatik orain itxita zara. Nola izan zen zure surera?

— Beaumettes-eko espetxearen sartu nindutenean, aurrena beste bi presoekin ondo nengoen hitzegiteko posibilitatea baitu nuen. Zeldak 4,5 X 3 metro zituen. Kanpo aldera ematen zuen. Baimo... laister bukatu zen nere poza! Jakin zutenean politikoak nintzelako zelda batetan, bakanrik, jarri ninduten. Baimoak zen, beste zeldan neurri berdinakoa.

— Zei egiten zinuen espetxe barnean?

— 6,30etan jeiki. 7ak alderia ekartzen ziruten kafe-esnearen antzeko bat. Hura hartzeta eta, astean hiru egunetan ordu erdiako bixita. Egun hoiletan, goiztan ere, 10 X 6 metroko patio batera paseora. Beste 15 lagunekin batera egoten nintzen. Oso ondo kontrolatua zegoen tokia, sare bat eta gurti zuen gainetikan.

— Bikitariak gabeko egunetan ez al zegoen paseorik emateko posibilitaterik?

— Bai. Goizean ordu t'erdikoa, eta arratsaldean berdin. Zeuden presoak de-nak frantsesak zirenez gero, aurreneko egunetan nahiko baztertua aurkitzen nintzen.

— Zembat preso zeuden espetxe barnean? Eta, hasetik, zembat ziren politikoak?

— Zeuden beste preso gurtiak sozialak ziren. Aurretik diferente ikusten ninduten — Ibarren kasoaren propaganda espetxe barrura iritsia zegoen eta nahiko probenizio begiratzenten ninduten. Gero manifestazioak hasi zirenen egunetik eguna, konfianza gehiago hartzen hasi ziren. Eta gose greban hasi nintzenean, sekulako erreipetoxarekin tratatzenten hasi ziren. Batzu lagunetan eta gurti eskeini zidaten!



— Heyoan, frantses funtzionarioak ez dira eragunak. Zer esan nahi daze Beaumettes-eko, gartzela residenti berer?

— Begira, "pasable" ziren, batzu kenduz gero; beste gurtiak "bere lana betetzen zuten". Zaharrak ziren. Fabrika batean zeudela zirudien 8 orduko "lana" bete eta kitto! Piso bakoitzean 113 zelako zeuden. Zelta gehienetan preso bakarrak nahiz eta batzuetan bi edo hiru egon. Denok zaintzeko lau funtzionario bakanrik. Egia esan, hartuta zituzten neurriez ez zen gehiago behar...

— Esan diguteenez, Frantziako espetxeta preso gartzela ordaindu beharrean surkitzen da...

— Noski ordaintzen dela! Nik, perekin neraman dirutik chuneko 10 administracioarentzat kendu zidaten, eta beste chuneko 10 espetxetik irtetzagatik (ez badizute dirurik ematen isteetan, lanik gabe, ezer gabe, "kinkiladak" egitera berareiek bultzatzen zaiturte).

— Egona zeren espetxek zer nolako kategoria du?

— Beaumettes-eko prebentivoa da, baina bertan dauden batzuk kondenatuak izaten dira. Kondenatua, hori bai. Hauek, lana egiteko posibilitatea dute. Gartzela ordaintzoko ondo dator posibilitatea hori. Orain, oso gutti ordaintzen zielata uste dut.

— Zeldaren barruan pasatzen zenitzen ordutegiak...

— Bai, denbora guztia irakurtzen. Hasieran ez nekien zer nolako eskubideak nintzen, eta bertako liburuak irakurtzen nintzen. Espainolez zeuden 50ak. Oso "konstruktiboa" ziren. Hain zuzen, irakurri ondoren, sekulako "kinkiladak" egitea ez litzaideakeen batere harrituko. Gero, enterratu nintzen eskatzen zenitzen periodikoa eta liburu gehienak lortzeko posibilitatea zegoela. Direktorearen gara joan eta, ez dakit ggorri jarri nintzen edo zer, baimo ordutik aurrera kanpoko liburuak eduki nintzen. Bidalitako pakete gehienak ez zirkulatzen ireki ere ez egiten! Beste aldetik, irratia bat nuen. Noiz behinka entzuten egoten nintzen, berriak bates ere. Neri interesatzen zitzalkidan gaurak ez nintzen entzuten eta laister itzaltzen nuen.

— Irakurritako liburuak titulak...

— Espetxe barrukoak? Ez naiz gogoratzan. Tirokoak eta antzekoak ziren. Kanpotik lortuta "El nacionalismo revolucionario", "Beltzarena", "Cartas desde la prisión" Eva Forestena... A-l eta asko gustatu zitzaldan bat! mmmmm. Ez naiz gogoratzan. "Tupamaroi buruz zen."

Ematen zinuen jau, nolakoak zen?

— Ematen zinuen jau, nolakoak zen?

— O (burua jiratzen du) oso txarra. Ezin zen jan. Goise greban hasi nintzenean jakin nuen kantinan, diruaren bider, jan ona lortzeko posibilitatea zegoela. Baina ni, goise greban egon!